



**EUSKO JAULARITZA**  
**ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA**  
**-GAZTERIAREN ENPLEGUA-**  
**HAUSNARKETA ETA EZTABAIDA DOKUMENTUA**

**GOBIERNO VASCO**  
**PLAN DE REACTIVACIÓN DEL EMPLEO**  
**-EMPLEO JUVENIL-**  
**DOCUMENTO DE ANÁLISIS Y DEBATE**

- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua -  
- Bizi Baldintza Materialak / Condiciones de Vida Materiales -  
- Bilbao - EGK - 2013.04.16 -

**Aurretiko oharra:** Dokumentu hau idazteko, EGKren kide diren kolektiboen parte-hartzea eta ekarpenak erabili dira, bai eta plataforma honetatik kanpoko beste eragile batzuenak ere. Dokumentuak Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Enplegua Sustatzeko Programaren dokumentuaren analisitik eratorritako hausnarketak, eta “gazteen enplegua sustatzeko” beste plan eta ekintza batzuen analisitik eratorritako hausnarketak ere jaso ditu.

Burutu diren enplegu planen analisi prozesuetan ondorengo kolektibo hauek hartu dute parte: Juventudes Obreras Cristianas (JOC), CCOO gazteak, Iratzarri, Gazte Abertzaleak, Ecuador-Etxea, JSE-EGAZ, Ezker Anitza Gazteak, Lurgorri eta EGKko talde teknikoa.

**AURKIBIDEA**

- A/// EMPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA EDO ENPLEGU PLANARI BURUZ\_**
- B/// GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMARI ETA GAZTEEI ERAGITEN DIETEN BESTE NEURRI BATZUEI BURUZ**
- C/// (GAZTEEN) ENPLEGU PLANEI BURUZ: PREBENTZIOAK ETA GOMENDIOAK**

[www.egk.org](http://www.egk.org)

A//

## **EMPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA EDO ENPLEGU PLANARI BURUZ**

1// Sarreran baieztatzen denez, “programa hau ‘**talka programa**’ bat da, epe laburreko eragina duena” eta “osatu beharra dago, epe **ertainerako Ekonomia Sustatzeko estrategia** batekin”: inbertsio publikoa, industrializazioa, berrikuntza eta nazioartekotzea. Horri dagokionez, pare bat iruzkin egin daitezke:

-Ez dago berririk aipatutako epe ertaineko estrategia horri buruz; beraz, ez dakigu osagarria den ala ‘talka programarekin’ kontraesanean dagoen.

-Programa honetan aurretik ere baziren neurri asko eta asko sartzen dira. Neurri berri gutxi proposatzen dira; beraz, egungo egoera honetarako berariaz diseinatutako talka programa bat baino gehiago, dirudenez, aurretiko neurrien bilduma bat da, kalera begirakoa eta hauteskunde konpromisokoa.

-Aurretik baziren neurriek osatuta egonik, programa hauek aurreko urteetan lortutako emaitzen gaineko informazio falta nabarmentzen da, eta neurri horiei eusteko eta horiek sustatzeko aukera baloratzeko, emaitza horiek erabakigarriak dira.

-Hala ere, ondo baloratzen da badiren programen bilduma publikoa egin izana; izan ere, ez zen orain arte halakorik egin, eta informazio hori eskuragarri izatea gakoetako bat da parte hartu ahal izateko, eta hori herritarren eskubidea da. Hala eta guztiz ere, bilduma hori jendeari berariaz diseinatutako plan gisa aurkeztea ulertezina da.

-Epe laburreko eragina duen talka programa batez hitz egiten den arren, jasotzen dituen neurriak, hein handi batean, epe luzerakoak dira: prestakuntza, birkualifikazioa, ekintzailtza (horiek ez dira epe laburrean errentagarriak), aholkularitza... Bestela, “jendea gauzak egiten edukitzea” da kontua, gizarte eta ekonomia beharrian eta eskubideak estali beharrean. Eta horrek kontraesana dirudi.

-Gainera, gazteen eta gure egoera partikularraren inguruan, betiko irtenbideetara kondentatzen gaituzte, prekarietatera, bizi gareneko gizarte eta ekonomi testuinguruaren barrenean dugun egoera berezitua kontuan izan gabe. Puntu honen gainekoa “gazteen enplegua sustatzeari buruz” atalean argitzen da.

-Aipatu beharra dago badirela neurri batzuk (gazteei zuzendutakoak) gaur egun aukera erreal bat ez direnak. Esaterako, “gazteak txanda-kontratuetan sartzeko laguntzak” neurria, gazteentzako 285 enplegu aurreikusten dituen programa batean sartzen dena, neurri irreal da, kontuan izanda halako kontratuak murrizketa handiak jasan dituztela.

2// Gainera, aurkezten zaigun programa ez dago batere zehaztua. Neurri berezituaren definiziorik ez du, eta neurri “saski-naski” gehiegitarako bidea zabaltzen du; horiek ezin ditugu baloratu, burutzekoak diren ekintzak “beste batzuk” gisa identifikatzen baitituzte. Egungo egoerak jarduketara argiak eskatzen ditu, eta herritarrenganako argitasuna eta gardentasuna.

3// Planean aurkezten diren printzipio eta helburuen artean, zehaztu beharrezkoa dela irizten diogun baieztapen bat egiten da:

“Egoera ahulenean dauden pertsonen gizarteratzea lortzeko eta hauen baztertzeta saihesteko modurik onena, euren laneratzea sustatzea da”. Bizi gareneko gizarte- eta ekonomia-ereduak gizarte- eta ekonomia-eskubideetara iristeko bide bakarra enplegua izan dadin eragiten du. Gauzak horrela, pertsonok, bereziki gazteok –gure egoera dena delako- ez gara eskubide osoko pertsonatzat hartuak izaten. Pertsonak, euren lan egoera dena delakoa izanda ere, eskubide osoko pertsonatzat hartzea (eskubide zibilak, politikoak, sozialak, kulturalak eta ekonomikoak barnean hartuta) modurik onena da hauen gizarteratzea lortu eta baztertuak izan daitezen saihesteko.

Ildo honetan, gaur egun zerbitzu publikoak desagerrarazteko eta pribatizatzeko edo hauetako asko azpikontratatzeko dagoen joerak, gure gizarteko pertsona guztien gizarteratze egokia lortzeko bidean, kontrako noranzkoa darama. Horrela, lan banaketa eta gizarte- eta ekonomia-eskubideen bermea “laneratze” soilia baino ikuspegi integratzaileagoa da (prekariatateari buruz ezer zehaztu gabe).

4// Bestalde, 2014, 2015 eta 2016 urteetarako, diru-bilketa handitu egingo delako aurreikuspena aipatzen da. Jakin nahiko genuke zer gertatuko den aurtengo aurrekontuak onesten ez badira. Handitzeko aurreikuspenak betetzen ez badira edo, alderantziz, jaisten badira. Zein neurri eragingo dio horrek? Zeintzuek jarraituko dute aurrera? Zein da lehentasuna?

Gainera, “Enplegurako Elkartasun Funtsa hornitzeko, aparteko diru-sarrerak edota gastu arruntetatik lortutako aurrezkiak erabiliko direla” baieztatzen da, eta horrek, hain zuzen ere, ezbaian uzten du “talka planetik” hurbilago dagoen programa.

	2013	GUZTIR A
ETEAK ETA AUTONOMOEN FINANTZAKETA	2,5%	2,6%
EKINTZAILTZA	15,3%	15,4%
GAZTEEN ENPLEGUA	8,1%	8,1%
ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	41,9%	41,8%
ELKARTASUN FUNTSA	14,3%	12,1%
RENOBE BIRGAITZEA	19,6%	18,8%

5// Ekintzailtza era desberdinak ezartzen dira, eta horien artean ekintzailtza soziala dago. Gure aburuz, ez ekintzailtza ez eta garapen ekonomikoa ere ezin dira izan baliozko aitzakia enpresetan ekintza antisozialak burutzeko. Ekintzailtza SOZIALAK ekintzailtza orotan zeharkakoa izan behar du.

Izan ere, kanpoko ezarpenetan ekintzailtza berritzaileko planetarako 32 milioi euro bideratzea kezkarria da ekintzailtza sozial moduan egiten ez bada, beste herrialde batzuetako pertsonen giza eskubideak zapaltzeko bidea ematen baitu horrek. Bitartean, ekintzailtza sozialerako diru-sailak soilik “ez finantziarazioko” neurriak jasotzen ditu, bideragarritasun azterketak edo enpresa mintegiak, esaterako.

6// Programari buruz lankidetzara irekitako programa dela esaten da; hala ere, zehaztuta aurkezten zaigu, eta dagoeneko abian jarrita dauden neurriekin. Ez da elkarrizketa sozial batean oinarritu (eginda dagoela, asmo hutsean geratzen da); eta ez dira Foru Aldundiak kontuan hartu, programan zehar hauen ekarpenak aurreikusi badira ere.

Hau da, ez da egon ez elkarrizketa sozialik ez eta instituzionalik ere, nahiz eta nahitaezkoak izan estrategia egokia eta eragingarria egiteko.

**7//** Programan esaten denez, beste programa batzuekin osatuko da: Gazteentzako Europar Bermea edo Estatuko Ekintzailtza Estrategia, esaterako; baina ez da zehazten zein modutan. Gainera, hau ez da oso segurua, programa hau osagarritasun edo koordinazio honen aurreko neurrietan oinarrituta baitago eta, gainera, ezartzen diren neurrien ondorioz, gazteek prekarietatezko irtenbide berberetara lotuta jarraituko lukete.

**8//** Amaitzeko, programa desberdinetan aurreikusitako sortutako enpleguagatiko kostuaren inguruko aipamen bat.

Kezkagarria da, batez ere, konparaziozko bidegabekeriagatik, “Enplegua sortzeko talka programa” honetan, neurri horietako batzuek sortutako enpleguagatik altxor publikorako izango duten kostua 40 eta 80 mila eurotik gorakoa izatea. Badirudi enplegua birsortzeko Programa aitzakia moduan erabiltzen ari dela enplegua sortzeko asmorik ez duten interesei erantzuteko hainbat plan erdiesteko. Beti ere, beharrezkoa iruditzen zaigu behar bezalako gardentasuna berma dadin esleitutako aurrekontuei eta lortutako emaitzei dagokienean, modu horretan gizarte zibilak ekintza publikoak fiskalizatu ahal ditzan.

**B///**

## **GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMARI ETA GAZTEEI ERAGITEN DIETEN BESTE NEURRI BATZUEI BURUZ**

1// Gazteen enplegua sustatzeko programan sartutako neurri berezituaren eraginez, gazteei betiko errezetak aplikatuko litzaizkiguke, gainerakoentzako errezeta berak, gazteek egungo gizarte- eta ekonomia-sistema barruan dituzten berezitasunak ere kontuan izan gabe (trantsizio egoera Vs. eskubide osoko herritarrek).

### **PROGRAMAREN DEFINIZIOA**

“Berariaz gazteen langabezi tasa altuen aurka egitea xede duen programa; horretarako erabiliko dituen neurriak:

laneratzea, → *ohiz kanpoko kontratazio formulak (5 programa)*

enplegurako prestakuntza → *4 programa (prestakuntza gehiago ondoen prestatutako belaunaldiarentzat)*

Gazteen ekintzailtzari laguntza eman” → *2 programa (azkenean, enplegatuta ez egotearen errua geurea izango da)*

2// Talentu gazteei buruz hitz egiten da, baina ez da zehazten, inondik inora, zein neurri hartuko diren. Non dago talentu heldua? Eta talentu politikoa?

3// Gazteen ekintzailtzari laguntza ematea. Kezkagarria da ekintzailtza moduen sailkapenean, hau izatea proiektuentzako zuzeneko laguntzarik ez duen bakarra. Bideragarritasun azterketei emandako laguntzak, bekak, prestakuntza programak eta halakoak aipatzen dira soilik.

Botere politikoek ekintzailtza aipatzen dute gazteen gizarte- eta ekonomia arazo guztietarako irtenbide moduan, baina bixkarrekoak baino ez dizkigute ematen. Badirudi azkenean geuk izango dugula lanik gabe egotearen errua.

Bideragarritasun azterketetarako laguntzak ondo daude, baina finantzaketa ere beharrezkoa da, eta ez bakarrik lehenengo edo bigarren urterako finantzaketa. Ondotxo dakigu ekintzailtza baten arrakastarako epea hori baino luzeagoa dela; beraz, gazteen ekintzailtzarako laguntzak honela mugatzea lepoan soka lotzea litzateke.

Konparaziozko bidegabekeriagatik, zalantza batzuk ere sortzen dira: industriako ekintzailtzarako eta nazioartekotzerako aurrekontu esleipena 32 milioikoa izatea, eta gazteen ekintzailtzarako 2,7 milioi izatea kezkagarria da.

4// Neurrien zehaztasunik ezak dena polita irudiarazten du, baina:

- ekintzailtza hezkuntza formalean = autoesplotazioaren alfabetatzea?
- ekintzailtza gaztea = ez autoenplegatzeagatik errua guri botatzea?
- gazteentzako enplegu berdea = energia enpresetarako esku-lan merkea?
- Sistema duala = eskubide gutxiagoko enplegua eta prestakuntzarik gabekoa?
- Lehenengo lan eskarmentua = enplegutzat ere hartzen ez den kontratu prekariora?
- bekak, praktikak... = gero eta prekarietate handiagoa?
- kontratatorako konpromisorik gabeko praktikak... = langabezia?

-bekak atzerrian = ez itzultzeagatiko deserriratzea?  
- (...)

5// Amaitzeko, plan hau Eusko Legebiltzarraren enplegu ponentzia oinarri hartuta diseinatua dela esaten da, baina askoz ere lehenago diseinatuta dagoela ematen du. Hala izango ez balitz ere, kezkarria da Eusko Legebiltzarraren gomendioak, zeintzuen aplikazioa lan prekarietatearen aurka borrokatzerantz bideratuko baitzen, Enplegua Sustatzeko Programa honetan erabat saihestu izana, gure egungo egoera iraunarazten laguntzen duten beste batzuei kasu egiten zaien bitartean. Adibide batzuk aipatzen dira:

#### -6. LAN ERREFORMA INDARGABETZEA

Lan merkatuaren erreforma onetsi zenetik urtebete igarota, eta egiaztatu denean erreforma hau, enplegua sortzeko balio beharrezko langileen kaleratzea erraztu duela eta lan harremanak –banakakoak nahiz kolektiboak- prekarioagoak egin dituela, Eusko Legebiltzarrak Espainiako gobernuari eskatzen dio lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Lege bitartez onetsitako lan erreformaren indargabetzea sustatzeko. (11)

-Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio **enpresetan enplegu egonkorra sortzea susta dezan**, laneratzeko arazo handienak dituzten pertsonak, emakumeak, eta **30 urtetik beherako pertsonak**, 45 urtetik gorakoak eta ezgaitasunen bat dutenak kontratatzeari **lehentasuna** emanaz **lehentasuna** emanaz. (4.3)

C///

## (GAZTEEN) ENPLEGU PLANEI BURUZ: OHARTARAZTEAK ETA GOMENDIOAK

### (GAZTEEN) ENPLEGU PLANEI BURUZ

Gazteen enplegua sustatzeko plan berezitu bat egiteko asmoa bada, bati ere, honako hauek kontuan hartzea nahiko genuke:

**1///** Gazten Enplegu Planak (GEP) ikuspegi global batetik sustatu eta diseinatuko den plana izan behar du.

Lan taldearen aburuz, **GEP batek zeharkako plana izan behar du, herri administrazio desberdinekin koordinatuz sustatua eta, gutxienez, Gazteri, Enplegu, Hezkuntza, Ekonomia Sustapena eta Ogasun sailak sartuta**. Hala ere, egungo merkatutik eratorritako gizarte-eta ekonomia eskubideak esfera guztietan urratzen direnez, zeharkakotasun honek arlo guztietara iragazi beharko luke, etxebizitza, nekazaritza eta beste hainbatetara.

Haatik, ohikoa da plan hauek sail bakar batek ezarriak izatea, normalean Ekonomia Sustapena, eta ez dira koordinatzen beste sail eta administrazio batzuekin (maila autonomikoa edo Lanbide, esaterako) edo interesa duten gizarte eragile edo kolektiboekin. Horren ondorioz, neurriak bikoiztuta agertzen dira, eta beste sail batzuek abian jarritako ekintzak kaltetzen dituzten ekintzak jartzen dira martxan.

**2///** GEP bat egiteko asmorik ez bada, **edozein enplegu planek gazteria kontuan hartu beharko luke burutzen diren ekintza guztietarako zeharkako ikuspegi moduan**.

Era berean, ikuspegi global batetik garatu beharko litzateke; izan ere, **soilik Ekonomia Garapenerako ikuspegitik eginda, herritarren eskubideak urratzean sakondu dezake, bereziki gazteenetan**, honen inguruko ekintza publikoen helburua Enplegua Ekitatez sortzea izan beharko lukeen bitartean.

Gaztetzakoak izan ala ez, beharrezkoa deritzogu enplegu planei buruzko ohar hauek kontuan hartzeari:

**2.A///** Eskualde eta lurraldeen arteko desberdintasun nabarmenak kontuan hartuta, enplegu plan baten oinarrian lurraldeen egoera ea beharrezkoen azterketa xehakatu bat, tokian tokikoa, egon beharko luke.

**2.B///** Enplegu planek **epe luzerako estrategia batean markoratuta** egon beharko lukete, eta izaera propioa eduki beharko lukete, urte bateko ahaleginak hurrengora batzeko moduan.

Hala ere, askotan soilik epe laburrerako neurriak hartzen dira, eta konexiorik gabeko neurri amalgama bat dirudite; azkenean gastu publikoa handitzen dute eta epe luzera ez dute inolako onurarik ekartzen.

**2.C///** Enplegu planek, bereziki jende gazteari zuzendutakoek, bi neurri mota hartu behar dituzte kontuan: neurri aktiboak eta presio neurriak.

Lan taldearen aburuz, enplegu planetan, eta, bereziki, jende gaztearentzat prestatutakoetan, neurri hauek jasota egon beharko lukete: enplegua sustatzeko neurriak, jende gazteak jasaten duen prekarietatea arindu edo desagerrarazteko modukoak. Hala ere, lehenengo lerroari begira hartzen dira neurriak (horietako batzuk eztabaidagarriak) baino ez dira jasotzen, baina neurri batek ere ez du asmorik lan eskubideetan eta gizarte eta ekonomia eskubideetan gazteek beste langile batzuen aldean duten desabantailari aurre egiteko; horiek izan daitezke, esaterako, praktiketako kontratuen baldintzak hobetzeko, mugarik gabeko kontratazioa sustatzeko eta halakoetarako presio politikoa egiteko neurriak.

**2.D///** Hori dela eta, ezer baino lehen, enplegu planek **ez dute lagundu behar gaur egun gazteek jasaten duten prekarietate egoera okertzen**. Horretarako, **abian jarritako neurriek gazteengan eta gainerako herritarrengan duten talka berezituari kasu egin behar diote**, bereziki prekarietatea, ekonomia- eta gizarte-zaurgarritasuna eta lan eskubideak urratzeari dagokionez. **Beharrezkoa da planak bere irismena zenbaterainokoa den aurreikustea, bai positiboki bai negatiboki.**

**2.E///** Enplegu plan bat **ezin da, inola ere, "Gazteen lepotik Euskal Herriko ekonomia sustatzeko plan bat" izan**. Herritarren ongizateak, epe labur, ertain edo epe luzera, politika publikoen erdigunean egon behar du, bai eta enplegu politiken erdigunean ere.

**2.F/// Enplegu plan batek ezin du ahaztu lehenengo sektorea.** Errealitateak erakusten digu gero eta jende gazte gehiagok bilatzen duela bere etorkizuna lehenengo sektorean (bestalde, honek belaunaldi txandaketa behar du), eta, horretarako, politika publiko aktiboak egokitu egin behar dira, hamarkada askotan zehar beste sektore batzuetara bideratuta baitaude.

## **NEURRI BEREZITUEI BURUZ**

Plan bat diseinatzeko asmorik gabe, badira neurri batzuk enplegu plan batzuetan errepikatzen direnak (gazteen enpleguak izan edo ez), eta, gure ustez, arreta jarri behar zaie horiei, hain zuzen ere, neurri horietatik erator daitezkeen ondorioei dagokienez, onak nahiz txarrak izan, behin eta berriro akats berberak ez egiteko.

### **1/// Praktiketako kontratazioari emandako diru-laguntza:**

Jende gaztea praktiketan kontratatzeke diruz laguntzen duten programa edo ekintzak ohikoak izaten dira gazteentzako enplegu planetan; hala ere, horixe da jende gaztearen lan egoera okertzen gehien lagundu dezakeen ekintzetako bat; izan ere, enpresen onurarako diren eta kontratatutako pertsonen gizarte-, ekonomia- eta lan-eskubideak murrizten dituzten ohiz kanpoko formulen bidezko kontratazioa sustatzen dute.

Gainera, berez jadanik diruz lagunduta dagoen kontratazio bat diruz laguntzea da, praktiketako kontratuek bai baitaukate jadanik enpresarako soldataren %40ko mozkina (lehenengo urtean) hitzarmenarekiko. Mozkin horri enplegu planen bitartez beste diru-laguntza bat edo gizarte segurantzari eginiko kuoten salbuespena eranstea, oso onuragarria da enpresentzat, baina kaltegarria gazteen prekarizaziorako, sustatu egiten baita.



Beste alde batetik, paradoxa bat gertatzen da: enplegu plan batzuetan, praktiketako kontratuei emandako diru-laguntzak handiagoak dira nabarmen (batzuetan bikoitza ere bai) ohiko lan kontratazioei emandako diru-laguntzak baino. Horretaz gain, praktiketako kontratuetan kontratatuen adinean muga jartzen da, eta ohiko kontratuei emandako diru-laguntzetarako ez; beraz, ikus dezakegunez, gazteen kontratazio prekarioa sustatzen da berdintasunezko baldintzetan laneratzea sustatu beharrean.

#### **Kontuan hartzekoak:**

**1.A//** Enplegu plan baten **helburua Ekitatezko Enplegua sortzea bada, ez luke praktiketako kontratazioa sustatu beharko, lan eskubideak urratzen baitira horrela, batez ere gazteena.**

**1.B//** Beti ere, praktiketako kontratazioa sustatzeak ez luke inola ere, enplegu plan baten ondorio gisa, enpresa batentzako onuragarriagoa izan behar kontratu hori baldintza duinetan eginiko kontratazio bat baino.

**1.C//** Era berean, halako kontratazioak onartuz gero, emandako diru-laguntzek **egonkortasun neurri lotesleak ezarri beharko lituzkete.** Hau da, **praktikaldia diruz laguntzeko, pertsona hori praktikaldiaren ostean –behin diruz lagundutako epea amaituta- enpresan kontratatu beharko litzateke** eta, hala ez balitz, emandako diru laguntza **itzularazi beharko litzaioke enpresari**; hala, diru publiko horrek pertsonarentzat baldintza hobekak izango dituen kontratazio bat lortzeko erabiliko litzateke.

**1.D//** Beti ere, gainbegiratu egin beharko litzateke halako kontratazioak **diruz ez laguntzea baldin-eta kontratazio horrek enpresako beste lanpostu bat kentzen badu.**

**1.E//** Amaitzeko, nabarmendu egin behar da **diru-laguntza hauek lor ditzaketen enpresen ekonomia-balantzeetan baldintzak ezartzeko beharra**; izan ere, enpresaren mozkinak kontratazioei aurre egiteko nahikoak baldin badira, ez litzateke diru publikoa horretarako erabili behar: enpresek ordaindu beharko lukete.

#### **2/// Kontratazioari emandako diru-laguntzari buruz**

Kontratazioak diruz laguntzea barne hartzen duten ekintzak sustatzekotan, kontratatuen lan-gizarte eta ekonomia- eskubideak urratzen ez dituzten kontratazioak lehenetsi behar dira. Dena dela, zehaztaper batzuk egin behar dira horrelako neurrien gainean:

#### **Kontuan hartzekoak:**

**2.A//** Gazteen enplegua sustatu nahi izanez gero, adin edota kupoei buruzko klausulak ezar daitezke diru-laguntza hauetan, baina inola ere ez litzateke lotu behar gazteen kontratazioa praktiketako kontratazioarekin, kontratazio hauek gainerako adinetarako gordetzen diren bitartean; izan ere, horrek gazteen prekarizazio handiagoa ekarriko luke.

**2.B//** Aitzinean aipatu den moduan, **kontratazioari emandako diru-laguntzak sortutako enplegua egonkortzeko neurriekin lotu beharko lirateke.** Hau da, diru-laguntza lortzeko, pertsona hori praktikaldiaren ostean –behin diruz lagundutako epea amaituta- enpresan kontratatua sinatu beharko litzateke eta, hala ez balitz, emandako diru laguntza itzularazi beharko litzaioke enpresari; hala, diru publiko horrek pertsonarentzat baldintza hobekak izango dituen kontratazio bat lortzeko erabiliko litzateke.

Gainera, esan beharra dago lan erreforman onetsitako ekintzaileentzako kontratu berriari begiratuta –zeinetan urtebeteko probaldia baimentzen den eta, horren ostean, kontratatutako pertsona kaleratu ahal den inolako kale ordainik ordaindu gabe- inoiz baino garrantzitsuagoa da enplegu egonkorra sustatzea eta prekarietatearen sustapena saihestea.

**2.C//** Amaitzeko, nabarmendu egin behar da enpresek diru-laguntza hauek lortzeko, enpresen ekonomia balantzeetan baldintzak ezartzeko beharra; izan ere, enpresaren mozkinak kontratazioei aurre egiteko nahikoak baldin badira, ez litzateke diru publikoa horretarako erabili behar: enpresek ordaindu beharko lukete.

### **3/// Ekintzailtza eta auto-enplegua sustatzeari buruz**

Ekintzailtza eta auto-enpleguari buruzko diskurtsoa gero eta zabalduago dago iritzi publiko eta politikoan, langabezia konpontzeko bide gisa. Bi ahoko ezpata da, ordea, biztanlerian zaugarritasun maila altuak sor ditzakeena, bereizkuntzarik gabe politika publiko moduan aplikatzen bada. Astirik ez dagoenez, ezin da dokumentu honetan honi buruzko diskurtso oso bat egin, baina ohartarazpen batzuk egin behar dira beste enplegu plan batzuetan antzemandako puntuak oinarri hartuta:

#### **Kontuan hartzekoak:**

**3.A//** Enplegu planetan enpresek bankuei eskatutako kredituen interesak diruz laguntzeko ekintzak aurkitu ditugu, eta hori onartezina da. **Enplegu plan egoki batean, diru publikoa ezin da erabili banku bati mozkinak bermatzeko, bizilagunen jarduna sustatzeko baizik.**

**3.B//** Askotan, ekintzailtzari eta ekonomia jarduerak abian jartzeari emandako diru-laguntzak soilik erregistro jakin batzuetan alta ematearen baldintzapean ematen dira; hala ere, diru-laguntza hauek emateko ez da begiratzen eskatzaileen **errenta maila**, eta, hala, oso errenta altuak dituztenek ere aukera dute diru-laguntza horiek lortzeko. Hori dela eta, lan taldearen aburuz, errenta marjinak ezarri beharko lirateke diru-laguntza hauetarako, errenta altuek euren ekintzailtza finantzatzeko ahalmena bai baitute.

Hala ere, **diru-laguntza hauek ez dira soilik izan behar etorkizuneko pertsona ekintzaile diren baina orain langabezian dauden pertsonentzat, modu horretan lan egoera prekarioan dauden pertsonen ez baitute aukerarik laguntza horietara iristeko.** Gainera, diruz lagundu daitezkeen gastuak enpresetatik eratorritakoetara mugatu ohi dira, eta ohiko gastuak ez dira ahalbidetzen. Horrela, eguneroko bizitzari aurre egin ezin diotenek ezin dituzte diru-laguntza horiek erabili. Horrek gazteei eragiten die batez ere, ezin baitute aurrez kirik gorde bere lan bizitza prekarioan; eta,

era berean, diru-laguntzak ez die uzten lanaldi partzialeko beste lan bat hartzen. Hori dela eta, beharrezkoa da arreta jartzea halako baldintzek gazteentzat izan dezaketen talka berezituari.